

Las Palmaseko eta Tenerifeko Santa Cruzeko Probintzia Auzitegiak

Probintzia Auzitegiak probintzia bat barne hartzen duten justizia auzitegiak dira eta dagokien probintziako hiriburuan izaten dute egoitza. Kanariar komunitatearen kasuan, Probintzia Auzitegiek bi hiriburutan dute egoitza: Tenerifeko Santa Cruzen eta Kanaria Handiko Las Palmasen. Ordena juridikzional zibilean eta zigor-arlokoan eskumena duten organo elkargokideak dira.

Kanarietako bi probintzia auzitegiak, bakoitzari dagokion probintzian, maila gorena duten organo juridikzional elkargokideak dira. Probintzia Auzitegi bakoitzak honako egitura hau du: Zigor-arloko hiru sail eta Zibileko hiru sail, apelaziorako eta bigarren instantziarako eskumenarekin eskualdeko epaitegietatik datozen prozedura eta epai guztientzako. Honako kide hauek osatzen dute sail bakoitza: Presidente bat eta magistratu bi edo gehiago.

- Las Palmaseko Probintzia Auzitegia San Agustin Plazako 6. zenbakian dago.
- Tenerifeko S. C.eko Probintzia Auzitegia Maiatzaren Hiruko etorbidean dago.